ISBN 978-84-946320-3-7

Alderson, Brian

Konkorduna eta "Mila eta bat gau" liburuko beste ipuin batzuk

Ilustratzailea: Michel Foreman

Itzultzailea: Aintzane Atela

Barcelona: Vicens Vives, 2017

ISBN 978-84-682-2776-4

Arrieta, Bertol

Elurraren formula

Donostia: Elkar, 2017 (Taupadak; 50)

ISBN 978-84-9027-705-8

Gallastegi, Lur

Limoiondoaren loreak

Ilustratzailea: Susanna Martín

Donostia: Elkar, 2017 (Xaguxar; 228)

ISBN 978-84-9027-727-0

Juaristi, Felipe

Iraganik gabe

Donostia: Erein, 2017 (Perzebal; 34)

ISBN 978-84-9109-163-9

Osoro, Jasone

Eskularru beltzak

Ilustratzailea: Joseba Larretxe "Josevisky"

Donostia: Elkar, 2017 (Eskularru beltzak; 1)

ISBN 978-84-9027-678-5

Sierra i Fabra, Jordi

Hitz zaurituak

Itzultzailea: Xabier Aranburu "Artzai"

Donostia: Elkar, 2017 (Taupadak; 51)

ISBN 978-84-9027-703-4

Osoro, Jasone

Casting-a

Ilustratzailea: Joseba Larretxe "Josevisky"

Donostia: Elkar, 2017 (Eskularru beltzak; 2)

ISBN 978-84-9027-716-4

14 urtetik aurrera

Agirre Garmendia, Alaine

Libe

Donostia: Erein, 2017 (Txandaka; 2)

ISBN 978-84-9109-211-7

Agirre Garmendia, Alaine

Maren

Donostia: Erein, 2017 (Txandaka; 1)

ISBN 978-84-9109-205-6

OSO GOMENDAGARRIAK

2 urtetik aurrera

Waddell, Martin

Hontz kumeak

Ilustratzailea: Patrick Benson

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea: Pamiela, 2017

Pontevedra: Kalandraka, 2017

ISBN 978-84-7681-993-7

Gauetz gertatzen den istorio bat da hontz kumeena. Album honek zuhaitz sendoz betetako baso ilun batera eramaten gaitu. Haien artean, zuhaitz eder batean, hontz familia bat bizi da: ama eta hiru kume.

Kumeak lo daudela, ama janari bila joaten da; hiru kumeak, bakarrik daudela konturatzen direnean, bakardadeari erantzuten saiatzen dira, beren adinean dakitenaren arabera. Dakigun moduan, hontzek asko, asko pentsatzen dute, eta iluntasunean ere ikusten dute.

Euren habiatik ateratzen direnean, kume bakoitzak bere kokapena aukeratzen du: nagusiak, adar sendoa; ertaina, hostoen artean jartzen da, eta txikia toki bigun batean geratzen da. Nagusiak hipotesi logikoak egiten ditu. Ertainak nagusiarenak baieztatuko ditu, eta beste zerbait gehitzen ausartuko da; txikia, berriz, ez dago hipotesiak egiteko prest. Berak barneko beharrak bete nahi ditu, eta behin eta berriz entzuten zaio: «Amatxorekin nahi dut». Eta, istorioan zehar, behin eta berriz, egitura hori errepikatzen da. Denbora aurrera doan neurrian, hirurak nagusiaren adarrean elkartzen dira, desio berberarekin: amatxo etortzea.

Ipuin honetan, amatxo badoa, eta berriro etortzen; erritmo horrek aukera ematen du hiru kumeen heldutasun prozesua bizitzeko.

Albuma zirkularra da, eta klasikoen egitura dauka: hasiera, korapiloa eta bukaera. Emozioz beteriko narrazioa da, eta irakurleak pertsonaien tentsioa, gaueko iluntasuna, beldurra, poza eta lasaitasuna bizi ditu. Ilustrazioen komunikazio indarra izugarria da, eta, halakorik gabe, istorio eder honek ez luke izango duen kalitatea eta edertasuna.

Portis, Antoinette

Ez da kaxa bat

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2017

ISBN 978-84-7681-998-2

Askotan gertatu zaigu ume bati opari bat egin eta bera denbora gehiago aritzea jolasean opariaren kaxarekin opariarekin baino. Eta ipuin hau horren adibide garbia da, kaxa bat irudimenak uzten dizun guztia izan daitekeela erakusten digulako.

Istori honen protagonistak untxi bat eta kaxa bat dira. Ipuinak orri marroiak eta orri gorriak tartekatzen ditu. Orri marroietan, norbaitek untxiari galdetzen dio zer egiten duen kaxa horrekin, eta, orri gorrietan, untxiak erantzuten du eskuartean duena ez dela kaxa bat. Eta, galdera eta erantzun bakoitzaren artean, argi eta garbi ikusten dugu kaxa bat besterik ez dirudiena beste zerbait bilakatzen dela: lasterketa autoa, robota, suak hartutako etxea, eta abar.

Ipuinaren argumentua oso sinplea da, esaldi labur eta zuzenez osatua. Ilustrazioak ere oinarritzko marra espresiboz eginak dira. Bi kolore erabiltzen ditu errealitatea (beltza) eta untxiak imajinatzen duena (gorria) bereizteko, bata besteari gainjarritz.

Liburuaren diseinua ere deigarria da, azalak kartoizko kaxen ukitua, kolorea eta itxura dituelako.

Liburu honekin, haurrek mundu berriak ezagutzeko aukera dute, eta irudimenaren garapena ere landuko dute.

Ez da kaxa bat Theodor Seuss Geisel sariko ohorezko liburua izan zen 2007. urtean, Estatu Batuetan haur literaturan argitaratutako liburu onenei ematen zaiena, hain zuzen. Istori alaia eta biribila da, oso aproposa bi edo hiru urteko haurrentzat.

González, Olalla

Gehiago garenean

Ilustratzailea: Marc Taeger

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2017

ISBN 978-84-7681-999-9

Haur baten etorrera oso berezia da etxeko txikientzat. Egoera horretan dago, hain zuzen, kontakizun honen protagonista.

Untxi txkia amaren sabela ikustean, konturatzen da laster ume bat izango duela eta noiz jaioko den galdetzerakoan, amak hau erantzungo dio: "oinak ikusi ezin ditudanean". Emozioz beteta eta jakin-minez, luze egingo zaio itxaronaldia eta amaren sabelaren zain egongo da. Zenbat amets eta ilusio! Pozaren pozez imajinatzen ditu bat gehiago direnean elkarrekin izango dituzten abentura eta jolasak. Aldiberean, bere alaitasuna eta zirrara basoko animaliekin partekatuko ditu eta haiei ere ume berria noiz jaioko den galdetzean, zera erantzungo diote: jaioberriarentzat prestatzen ari diren oparia bukatzen dutenean. Azkenean, jaiotzaren eguna helduko da eta hori bai ezustekoa!

Bukaera dibertigarri batekin amaitzen da txikiei zuzenduta dagoen liburu samur eta alai hau. Etxeko ume nagusia izango denaren sentimendu eta zirrarak jasotzeaz gain, liburuak denboraren joana ulertzen ere lagunduko dio umeari.

Ipuin kateatua da; egitura errepikakorrak ditu, eta akuarelako tonu suabez egindako ilustrazio xume eta xarmagarriz osatuta dago. Errealitatea eta ametsen irudiak tartekatzen dira, eta azken horiek, gainera, kolore bakarraz eginda daude. Ipuin maitagarria eta egokia laster gurasoen maitasuna partekatuko dutenentzat.

4 urtetik aurrera

Timmers, Léo

Belea

Itzultzailea: Gerardo Markuleta

Alzira: Algar, 2017

ISBN 978-84-9142-103-0

Belea txori handia da, eta burua, hegoak eta isatsa beltzak ditu. Mokoa lodia du, eta hegoek metro beteko luzera izaten dute. Nahiko fama txarra du, eta sarritan ikaratu egiten gara halako bat ikusten dugunean. Horrela gertatzen zaie album honen txoritxo protagonistei (txonta, papagaia eta kaskabeltza); hain beltza eta handia ikusten dute, beldur baitira. Ondorioz, ez dute izan nahi harremanik harekin.

Baina beleak badauka bihotza; bularrean kolpeka hasten zaio, eta bakarrik sentitzen da. Bakarrik eta beltza eta munstroa! Ahalegin handia egingo du haiengana hurbiltzeko, eta, horretarako, txoritxoen kolorez jantzi eta porrot galanta jasoko du!

Bidean, espero ez zuena gertatuko da, eta pozaren pozez amaituko du narrazioaren bidaia!

Oso egitura klasikoa eta sinplearekin, desberdina izateak dakarren nekea eta sufrimendua kontatzen du narrazioak. Desberdina izan arren, handia edo beltza izan arren, fama txarra izan arren, denok daukagu bihotza, poztasunaren eta lagunen beharra.

Formatu handiko albuma da; ilustrazio garbi eta koloretsuak ditu, eta espazio zuri handiak orrietan. Bi orri zuri erabiliz, liburu osoan zehar luzatzen den kable beltz baten gainean mugitzen dira protagonistak. Autoreak umorea, forma, kolorea eta ideia indartsuak konbinatzen ditu, modu bikainean.

Liburu ederra da, helduok eta umeez elkarrekin partekatu, hausnartu eta gozatzekoa.

Tullet, Hervé

O! Soinuak egiten dituen liburua

Itzultzailea: Aztiri, itzulpen zerbitzuak

Donostia: Tarttalo, 2017

ISBN 978-84-9843-760-7

Haurrekin partekatzeko liburu aparta dugu honako hau. Egilearen aurreko liburuen ildoari jarraituz, orrialde zuri batean agertzen den biribil bat izango da abiapuntua, eta hasierako orrian bertan egileak jolasteko gonbita egingo digu. Kasu honetan, hari nagusia soinuekin eginiko jolasak izango dira, eta haurrek zein helduek une dibertigarriez gozatzeko aukera izango dute, imajinazioa eta inprobisazioa landuz. Formek eta koloreek garrantzia daukate. Puntu bakoitza eta berari dagokion soinua kolore batekin identifikatuko dugu, hala nola urdina, gorria eta horia, eta, lortu nahi den

helburuaren arabera, handitu, txikitu edo formaz aldatuko dira. Honela, bada, zenbait orrialdetan zehar, abestu, negar egin, maitatu, borrokatu eta sentimendu andana izango dira pil-pilean, eta istorioa gero eta gehiago nahaspilatuko da aurrera egiten dugun heinean. Gonbita eginda dago, bada; orain, guri dagokigu unibertso berezi zein zirrargarri horretan barneratzea. Une dibertigarriak ziurtatuta daude.

Rodari, Gianni

Ipuinak nahasten!

Ilustratzailea: Alessandro Sanna

Itzultzailea: Fernando Rey Escalera

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2017

ISBN: 978-84-9172-011-9

Gianni Rodariren *A sbagliare le storie* (Edizioni EL, Trieste) 2003an argitaratu zen, Alessandro Sannaren ilustrazioekin. Gianni Rodari idazlearen «telefonozko ipuin» bat dugu oraingo hau, Txanogorritxo, aski ezaguna den pertsonaia, eta hari beste modu batez begiratzeko gonbidapena egiten digu. Narratzaileak *Txanogorritxo* ipuin klasikoa kontatzen du. Baina, behin eta berriro, ipuinean oinarritzekoak diren elementuak aldatzen ditu, nahasten ditu, eta beste ahots batek zuzenduz erantzuten. Era berean, ilustrazioen bidez ederki asko jarrai dakieke nahaste eta zuzenketa horiei, kontakizuna osatuz eta aberastuz. Akwarelaz eginiko irudi soilak dira, eta kolore indartsuak dituzte. Ipuinaren amaieran, jabetzen gara aitona dela bere ilobari ipuina kontatzen ari zaiona. Baina egiten dituen nahasketak ipuina ezagutzen ez duelako ala nahita eginikoak ote dira? Rodariren istoriotxo honetan, helduaren eta hauraren arteko jolasa aurkitzen dugu, non elkarrekin irakurriz bien arteko konplizitatea bultzatzen den:

«- *Bazen behin Txanohorritxo izeneko neska bat.*

- *Ez, Gorritxo!*».

Modu jostagarri horretan, entzulea ipuinaren parte hartzaile aktibo bihurtzen da.

Oraingoan ere, fantasiaren maisu den idazle honek, Sannaren ilustrazio dibertigarriekin, aukera paregabea eskaintzen du irakurle gaztetxoenen irudimenari atea ireki eta bertan murgilduta aritzeko.

McKee, David

Elmer elurretan

Itzultzailea: Antton Olano

Donostia: Erein, 2017

ISBN 978-84-9109-237-7

Elmer elefante koloretsuaren beste abentura dibertigarri eta umoretsu baten aurrean gaude. Umorea eta adorea dira Elmerren ezaugarri nagusiak, eta abentura honetan agerian gelditzen da urteak joan ahala hori ez dela aldatu.

Elefante koloretsu honen lehenengo abentura 1968an argitaratu zen, Erresuma Batuan. Euskaraz, aldiz, 2012an argitaratu zuten lehena Erein eta Igela argitaletxeak, eta hau Elmer elefante koloretsuaren hirugarren albuma da.

Kasu honetan, Elmerrek hotzak eta haserre dagoen elefante talde batekin egiten du topo, eta bere baikortasuna eta alaitasuna erabiltzen du egoerari aurre egiteko. Paseotxo bat egitera eramaten ditu denak mendian gora. Paisaia aldatuz joango da pixkanaka-pixkanaka, elurra euren aurrean agertzen den arte. Hura ikustean, elefanteen aldartea aldatu egiten da, eta denak jolasean, barreka eta algaraka hasten dira. Aurreko albumetan bezala, honetan ere David Mckee idazle eta ilustratzaileak Elmerrek egindako broma edo txantxa bat sartzen du istorioan, umore puntu hori ipuinari gehituz. Ilustrazioen sinpletasunak baina aldi berean kalitate handiak oso ondo transmititzen dituzte protagonistek bizitzen dituzten sentimendu aldaketak.

Haurrek eta irakurle helduok asko maite dugu Elmer: haren umorea, harremanetarako grina, kolorea, samurtasuna, azkartasuna. Arrakasta eta kariño horrek eman dio pertsonaiari goi mailako ospea, klasiko bihurtzeraino.

Lionni, Leo

Alex eta sagu mekanikoa

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2017

ISBN 978-84-7681-985-2

Leo Lionniren klasiko bat dugu album ilustratu hau, lehen aldiz 1969an argitaratua eta Caldecott ohorezko dominarekin saritua.

Liburu honetan, Alexen eta Gilleren istorioa kontatzen da, bi sagu oso ezberdin: bata hezur-haragizkoa, bestea berriz mekanikoa. Halere, hori ez da oztopo izango bien artean adiskidetasuna sortzeko.

Bi saguak etxe berean bizi dira. Alex gordeta, ezkutuan, ihesi, beti beldurrez familiakoek ikusiko ote duten. Edozer emango luke ez duen maitasuna eskuratzeko. Gille, aldiz, zoriontsu da bere jabearen besarkadak jasoz, maite duela sentituz. Nahieran ibiltzeko askatasunik ez izan arren, ez du horren beharrik sentitzen.

Egun batean, Alexi aukera paregabea sortzen zaio: muskerraren magiari esker, sagu mekaniko bihur daiteke. Baina, konturatzen denean Gillek bere jabearen maitasuna galdu duela eta kaxa batean baztertua izan dela, eskatua zuen desioa aldatzen du. Alexek hartzen duen erabakia ezin hobeto islatuta agertzen da, eta edozein gauzaren gainetik aukeratzen ditu lagunaren arteko adiskidetasunaren eta eskuzabaltasunaren balioak.

Liburu eder honetan, ilustrazioek garrantzi handia hartzen dute. Collage teknikaz, ilustrazioak oso koloretsuak dira, eta maisutasunez erabiliak.

Leo Lionni egile ezaguna da gure artean, argitaratuak dituen hainbat lanengatik: *Urdin txiki eta Hori txiki*, *Frederick*, *Igeritz*, *Matiasen ametsa*, *Munduko etxerik handiena*, etab. Aipagarria da haren liburuek haurrari eskaintzen dioten irakaskuntza paregabea, guztietan agertzen baitira, modu sinboliko eta artistikoan, bizitza errealean sor daitezkeen egoerei aurre egiteko estrategiak.

Autoreak zioen bezala, «arteak, nolabait eta edonon, haurtzaroko sentimenduak adierazten ditu».

Donaldson, Julia

Grufaloaren alaba

Ilustratzailea: Axel Scheffler

Itzultzailea: Amets Santxex Munain (Bakun, S.L.)

Madrid: Bruño, 2017

ISBN 978-84-696-2155-4

Munstro ospetsua bilakatu da azken urteotan Grufaloa. Hala ere, ia 20 urte pasatu dira Julia Donaldson idazle ingelesak Grufaloaren lehen abentura idatzi zuenetik. Haur liburu «klasikoa» bilakatu da ordutik hona, milioika ale saldu baititu mundu osoan zehar.

Grufaloa ipuin arrakastatsuen ondorengoa dugu *Grufaloaren alaba*. Grufaloa aita izan da, eta, oraingoan, haren alaba da protagonista nagusia.

Basoan ez sartzeko esaten dio behin da berriro aita Grufaloak bere alabari, sagu erraldoi gaiztoa bizi baita bertan. Hala ere, alabaren jakingura handia da, eta gau hotz eta elurtsu batean saguaren bila irteten da basoan barrena. Bidean, basoko animalia ugarirekin egiten du topo, sagua aurkitu arte.

Egitura zirkularra dauka ipuinak, eta egoera bera errepikatzen da animalia guztiekin. Errimaz narratua dago, eta horrek ere kontakizun klasikoaren itxura ematen dio ipuinari.

Aurreko ipuinean bezala, saguak, txikia izan arren, besteak baino azkarragoa izan daitekeela erakutsiko du, eta Grufalo txikiak ikasiko du aitaren aholkuak garrantzitsuak direla, nahiz eta batzuetan kasurik ez egin.

Grufaloak merezi duen lekua irabazi du haur literaturaren historian, eta, horretarako, ezinbestekoa izan da Axel Scheffler irudigilearen aparteko lana. Berak sortutako Grufaloa haurren imajinarioan geldituko da betiko.

Alejandro, Rocío

Ximunen baratzea

Itzultzailea: Fernando Rey Escalera

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2017

ISBN 978-84-9172-010-2

Ximun untxiak azenario asko erein zituen, baina beste norbaitek letxugak landatzeko iradoki zion; beste batek, tomateak landatzeko; beste batek, alberjiniak... Eta baratzea, horrela, barazkiz ez ezik nekazari bereziz ere bete zen: sagua, oiloa, akerra, txerria, azeria... Halako batean, Ximunek alde egiten du. Nora joan ote da? Haserretu egin al da? Bukaera jakiteko, azken orrialderaino irakurri beharko duzue, bai baitago sorpresa eder bat!

Album irudidun ederra eta iradokitzailea da, Nazioarteko X. Compostela saria irabazi duena. Epaimahaikideek istorioaren progresio narratiboa eta unibertsaltasuna azpimarratu dituzte, baita ekologiari egiten dion keinua ere. Bizitzarako ezinbestekoak diren hainbat balio transmititzen ditu. Talde-lana goستن du, baita bizikidetz, esfortzuaren balioa eta naturarekiko harremana ere.

Interesgarria iruditzen zaigu nolako bilakaera daukan protagonistaren izaerak istorioan zehar. Azpimarratzekoa da ipuinaren hasieran Ximun ingurukoekin ezatsegina dela eta muturtuta bizi dela; baina izaera ilun horri buelta ematen jakingo du, eta ezberdinak diren lagunekin harreman irekia eta baikorra landuko du.

Rocío Alejandroren irudiak xaloak dira, baina ez sinpleak. *Naif* ukitua dute, eta erritmo handikoak dira. Interesgarria da eskaintzen dizkiguten irakurketa maila ezberdinak, pertsonaien deskribapena eta orrialdeen konposaketa.

Ximunen baratzea etxeko txikiekin gozatzeko eta ikasteko liburua dugu. Hazia hartu (liburua), lurra erein (irakurri), gozatu (ureztatu), eta, pixkanaka, irakurzaletasunaren baratzea loratzen joango da.

6 urtetik aurrera

Zapata Ochoa, Sofia, Sozapato

Matilde

Pontevedra: Kalandraka, 2017

ISBN 978-84-8464-295-4

Matilde margolari maisuaren etxeko leihotik begira dago, margolariak bere artelanak nola egiten dituen ikusten.

Margolanek bereziak dirudite, oihalean margotzen dituen irudiek bizia hartzen baitute; gorpuztu egiten dira, eta koadrotik irteten, bizidunen artera, kalera.

Halako batean, Matildek pintzel bat lapurtzen dio margolariari, eta dragoi bat marrazten du kaleko pareta batean. Margoa, dragoia, gorpuztu eta benetako dragoi bihurtuko da.

Matilde eta berriki egin duen artelana kalean doaz, baina dragoia, dragoiek egiten duten legez, gaiztakeriak egiten hasiko da, harik eta margolari maisua agertu eta irudia berriro mihisera itzultzen laguntzen dion arte.

Testuaren beharrik ez duen ipuin hau irudien edertasunaz baliatzen da kontakizuna harilkatzeko. Azal gogorrean argitaratutako album honek, formatu handiagoa eskatzen zuen arren, irudiei esker lortzen du irudimenaren indarraz edonor liluratzen.

Ezbairik gabe, album gogoangarria.

Igerabide, Juan Kruz

Euskal Herrietako ipuinak: Baratxuri, gatz, arrautza, txori eta titiriti

Ilustrazioak: Elena Odriozola

Berriozar: Denonartean, 2017

ISBN 978-84-16791-52-1

Tradizioko ipuinak jasotzen ditu Juan Kruz Igerabidek bilduma honetan.

Bost ipuin Elena Odriozolak irudi zabalgarri ederrekin jantzi dituenak, eta ez bakarrik txikiek, helduek ere disfrutatu ahal izango dute.

Bost narrazio laburrek «Baratxuri», «Zapatari txikia», «Txoritxoaren arrautza», «Erregea eta gatza» eta «Errotariaren txakurra eta txori kantaria» dute izenburua.

Egileak sarreran adierazten duen legez, kontatuaz eta irakurriaz bizirik dirauten betiko ipuinak dira. Herrialde batetik bestera antzinako eta gaurko herritarrak elikatzen, mozten, eraldatzen eta nahasten ari direnak.

Jose Maria Satrustegi, Joxe Miel Barandiaran eta Joxe Arratibel etnografoek jaso zituzten moldaeretan oinarritu da, baina, edizio honetan, egileak berak egin ditu egokitzapenak, eta bere erara kontatu ditu, berari etxean kontatu zizkioten erara.

Tipografia handiarekin idatziak dira, samurrak eta laburrak, eta bukaeran olerki batez lagunduta datoz.

Odriozolaren ilustrazioak Aurelio Arteta edo Arrue anaien margolanetan oinarrituak eta inspiratuak daude, eta XX. mendearen hasierako euskal kulturaren eszena kostunbristak islatzen dituzte.

Eta honako hau artelan txiki bat dugu. Betiko ipuinak dira, tradizioak jaso dituenak, gaurko idazleek ahaztu nahi ez dituztenak, eta guk ere zabaltzen jarraitu nahi ditugunak.

Bilbo, Leire

Mokotxiki

Ilustratzailea: Maite Mutuberria

Arre: Pamiela, 2017

ISBN 978-84-9172-013-3

Moko txiki txori txiki bat da, hipopotamoaren bizkar gainean bizi dena. Han dauka bizitzeko behar duen guztia. Ez du hegoak astindu beharrik edonora bidaiatu ahal izateko. Hipopotamoaren gorputz zabalean eroso bizi da; han elikatzen da, eta, aldi berean, babesa ere topatzen du. Ordainetan, Moko txikik garbitu, orraztu eta zaindu egiten du hipopotamoa, zaurietan hazten zaizkion zomorrotxoak janez.

Baina, elkarbizitza horretan, txoritxoa galtzaile irteten da: ez daki hegan egiten, ez daki bere kasa ibiltzen, ezta txorrotxioka komunika daitekeela ere.

Ez da lehen aldia Leire Bilbok eta Maite Mutuberriak elkarrekin album ilustratu bat egiten dutela, eta bikotearen elkarlanak fruitu oso onak eman ditu (*Gerrak ez du izenik, Pikondoaren balada, Xomorropoemak...*).

Kasu honetan, idazleak norberaren ezagutzari, bakoitzak bere bidea egiteari eta geure buruarekin harro egoteari eman nahi izan dio garrantzia ipuin honekin. Ondo neurtutako hitzez osatu du istorioa. Aldi berean, ilustratzaileak irudi zoragarriak kontatu du bi animalien arteko harremana. Irudiak xehetasun txikiz beterik daude, hipopotamoaren larruan lurralde oso bat irudikatuz edo hipopotamoz betetako putzuak munduko maparen itxura hartuz. Istorioa eta marrazkiak oso ondo uztartuta daude, eta, irudiei begiratuz, oso ondo jarrai dakioke narrazioari. Ilustrazioen kolorea ere aldatuz doa protagonistaren egoera pertsonalaren arabera, urdin argitik beltzera eta beltzetik kolore anitzetara.

Kontakizun ederra irudi zoragarriak ilustratua, narrazioa mezu baikorrez bete, irakurketa lasai batekin goxatzeko.

8 urtetik aurrera

Sanna, Francesca

Bidaia

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Donostia: Tarttalo, 2017

ISBN 978-84-9843-694-5

Album eder honek immigrazioari buruzko ikuspuntu indartsu eta interesgarria eskaintzen du. Istorioaren hasiera Sirian koka dezakegu, ekonomikoki eta kulturalki egoera onean dagoen familia batean: gurasoak eta bi ume, liburutegi ederra etxean, harmonia harremanetan, autoa, bizimodu eroso duen familia. Baina gerrak eztanda egiten du, eta aita lapurtzen diete. Ondorioz, amak erabaki gogorra hartu behar du: dena utzi, eta bidaia bati ekin, txoriek legez, etxe berri bat aurkitzeko. Eta bidaia luzea eta nekeza da: autoz, kamioiz, oinez, txalupaz, trenez... Txoriek ez dute mugarik; bai, ordea, errefuxiatuek eta immigranteek: mugak eta mugak, eta horma ikaragarriak aurkitzen dituzte.

Francesca Sanna ilustratzaile italiarrak hainbat errefuxiatu eta immigranteren istorioak entzun ondoren eta barne-barnean hunkiturik sortu du *Bidaia* liburua. Hainbat istorioren collage moduko bat egin du, errefuxiatuen nekearen, kemenaren eta indar sakonaren erakusle, eta omenaldia egin nahi izan die. Baina irakurleok ondo dakigu autorearen istorioko errefuxiatuek posizio onenatarikoa daukatela, ikasiak eta profesionalki prestatuak daudelako (kalkulatzen da 1991. urtetik 56 milioi inguruk utzi dutela beren etxea, hainbat gerratetan).

Ilustrazio ederrak bat datoz testuarekin, eta narrazioari indarra eta poesia ematen diote. Esango genuke autoreak, nahiz eta bidaiaren narrazioa deskriptiboa egin, narratzaile protagonistaren bitartez lortzen duela narrazio sinbolikoa. Eta, zalantzarik gabe, protagonista narratzailea izateak sinesgarritasun handia ematen dio istorioari. Lorpen horiek ematen diote liburuari kalitate bikaina eta hondoraino sartzen den emozioa eta egungo egoeraren salaketa. Miren Agur Meaberen itzulpena ederra iruditu zaigu.

10 urtetik aurrera

Kinney, Jeff

Gizajo baten egunkaria: suerte txarra

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun: Alberdania, 2017 (Greg; 7)

ISBN 978-84-9868-394-3

Gezurra dirudi, baina duela 8 urte hasi ginen Gregen istorioak euskaraz irakurtzen. Dagoeneko 9 liburu argitaratu dira euskaraz eta 12 gaztelaniaz, eta, irakurleen kopurua ikusita, jarraitzeko itxura guztia dauka.

Milioika ale saldu dira munduan zehar, eta haur eta gazte literaturan azken urteetako best seller ezagunenetariko bat da. Gregen abenturak agorrezinak dira, eta, istorioak bata bestearen antzekoak izanik ere, ez dira inolaz ere errepikakorrak suertatzen. Irudimena eta umorea daude presente, eta behin eta berriz harrituko zaituzteten burutazio bizi eta zoroak topatuko dituzue. Greg alferra da, berekoia, harroa, lotsagarria, anti-heroia zentzu guztietan, eta, hala ere, edo horregatik hain zuzen ere, maitekorra suertatzen da. Irakurlearekin sortzen duen konplizitatean datza haren arrakasta, zalantzarik gabe.

Oraingoan, tituluak dioen bezala, Gregek suerte txarra dauka. Haren lagun minak, Rowleyk, neska-laguna aurkitu du, eta egoera berri horrek bere mundua hankaz gora jartzen du. Beti bezala, eskolan eta familian biziko ditu bere gorabeherak, eta, behin baino gehiagotan, irakurleak ezin izango dio barreari eutsi pasadizo asko irakurtzen dituenean.

Pertsonaien izaera komikoa azpimarratzeko, zuri-beltzez egindako marrazki sinpleak erabiltzen ditu egileak. Ondo pasatu nahi baduzu, murgildu beldur barik Greg mutikoaren unibertsoan. Ez zaizu damutuko.

12 urtetik aurrera

Bilbo, Leire

Pikondoaren balada

Ilustratzailea: Maite Mutuberria

Donostia: Elkar, 2017 (Xaguxar; 223)

ISBN 978-84-9027-710-2

Haur literaturaren honoan, istorio ederrak eta zer pentsa ematen dutenak izaten dira askotan, eta halakoa da esku artean dugun liburua. Horren adierazle da, hain zuzen, XXXV. Lizardi saria jaso izana.

Hasiera oso indartsuaz baliatzen da idazlea protagonistak eta euren testuingurua aurkezteko. «Ez zela jaitsiko esan zuen Lukasek. Ez zela jaitsiko pikondotik». Osaba Lukas da istorio honen ardatza, eta kontaketa bere iloba Martinak egiten du. Neskatoak euren etxeko giroaren berri ematen du, gerra hotsa iristearekin batera etxekoen egoera nola aldatzen den erakutsiz.

Gerra iristean, Martinaren aitak eta osaba Lukasek erabaki ezberdina hartuko dute. Bi pertsonaia horien arteko dikotomia behin eta berriro aurkezten digu idazleak. «Zerua eta lurra bezalakoak ziren. Bata beti goian zegoen bitartean, bestea sustraiei lotuta». Horren helburua, gure ustez, bizitzari aurre egiteko era ezberdinak erakustea da. Didaktismorik gabe, irakurlea presionatu gabe. Osaba pertsona berezia da, oso. Bakezalea, irakurlea, askea eta ameslaria. Ezer egin gabe ekiten duten horietakoa. Iloba Martinari bere bizitzaren balioak transmitituko dizkiona.

Plazera da istorio hau irakurtzea, pentsarazi nahi duen kontakizuna dagoelako haren atzean. Eta plazera da, nola ez, Leire Bilbok erabiltzen duen hizkuntza, zaindua eta dotorea.

Fantasiaraz eta irudimenez betetako testu honen ilustrazioak poetikoak eta iradokitzaileak dira. Osaba Lukasen mundu irudimentsu horretara eramango gaituzte. Marrazkiekin batera, garai bateko argazkiak azaltzen dira, benetako jendearen aurpegiak, zuri-beltzean, fantasiaren eta errealitatearen arteko dikotomia azpimarratuz.

Pikondoaren balada euskal haur literaturak emandako altxor txiki bat da. Gazteek zein helduagoek gozatzeko emana. Aditu liburu honen taupadak eta gozatu; dastatu eta estutu, estutu indarrez, bizitza baitauka borborka barruan.

14 urtetik aurrera

Wilde, Oscar

Cantervilleko mamua eta beste ipuin batzuk

Ilustratzailea: Jesús Gabán

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal

Barcelona: Vicens Vives, 2017 (Literatura-eskola; 4)

ISBN 978-84-682-1968-4

Oscar Wilderen (1845-1900) ipuin ezagunak Literatura-eskola bilduman argitaratu dira, bildumaren ohiko atalekin: hitzaurrea eta idazlearen biografia landu bat; ipuinak, ohar ugariarekin, eta, amaitzeko, jarduera didaktikoak.

Gure ustez, biografiak, hainbat argazkiz eta ilustrazioz hornitua, asko laguntzen du XIX. mendeko autoreak kokatzen eta haren bizitzaren eta obraren ildo nagusiak ezagutzen. Badaude literaturan eta artean joera batzuk esaten dutenak obra irakurri behar dugula autoreak ezagutu aurretik; baina, gure ustez, lagungarria da idazlearen garaia eta oinarritzko ezaugarriak ezagutzea, haren obra hobeto irakurtzeko eta dastatzeko.

Oscar Wildek poesia, antzerkia eta narrazioak idatzi zituen, baina ipuinlari trebea ere izan zen, eta, haren esanetan, umeengan pentsatuz idatzi zituen hainbat ipuin; adibidez, edizio honetan dauzkagunak.

Beraz, aukera daukagu autorearen zazpi ipuin irakurtzeko eta dastatzeko: «Cantervilleko mamua», «Erraldoi berekoia», «Printze zorionsua», «Adiskide mina», «Suziri berebizikoa», «Urretxindorra eta arrosa» eta «Errege gaztea». Agian, lehena da haren narrazio labur edo ipuinen artean ezagunenetakoa, baina denak hartzen dira goi mailako obratzat, autorearen etapa oparoan idatziak.

Wilde, kritika literarioaren esanetan, oso idazle zorrotza eta sakona da, pertsonaien hondoraino sartzen dena eta kapaz dena gizakien jardueren arrazoi sakon eta misteriotsuenak irakurtzeko. Aipatzekoa da autoreak kultura klasiko zabala zeukala, oso ondo zekiela latinez eta grekoz, eta hainbat hizkuntza moderno ere ezagutzen zituela. Ezagutza horiei esker, oso gizon ikasia zen, eta, Europako agertoki kulturaletik edan, hartan inspiratu, eta jakinduriaz jositako istorioak osatu zituen.

Esku artean dauzkagun ipuinak ondo entzuten baditugu, harrিতa geldituko gara zein aktualak diren hainbat urte pasatu ondoren ere.

Guk ez ditugu aztertu liburuan eskaintzen diren ariketa didaktikoak. Gomendatzeko duguna zera da: ipuinak irakurri eta autoreari lehengo hurbilpena egin. Merezi du!

D'Adamo, Francesco

Iqbalen historia

Itzultzailea: Lurdes Auzmendi

Donostia: Alai, 2017 (Ganbara)

ISBN 978-84-946491-2-7

Haur esplotazioa ezkutuko errealitatea da herrialde askotan zehar. Pobreziak eta ustelkeriak haur asko behartzen ditu esklabotzako lan baldintza gogorretan jardutera. Francesco D'Adamok Iqbal Masih haur pakistandarren istorioa aurkeztu du errealitate gordin horretaz kontzientzia har dezagun. Fatima neskatoaren eskutik ezagutuko dugu Iqbalen istorioa. Hussain Khan-en alfonbra fabrikari lan egiten du Fatimak, beste hainbat haurrekin batera, eta Iqbalen etorrerak bazterrak aztoratuko ditu, egoera krudel eta lazgarri horretatik ateratzeko borroka temati bati hasiera emanez.

Dena dela, aipatu beharra dago azaleko salaketa soil batetik harago egileak istorio sinesgarri bat taxutzea lortu duela, helburu hezitzaile edo didaktikotik urrunduz. Egoera krudelen gaineratik, mezu itxaropentsu bat igortzen digu: ez dela itxaropena galdu behar, ustelkeriaren eta hipokrisiaren gaineratik borroka eta salaketak badutela eragin baikorrik.

Hezkuntzaren garrantzia ere azaleratzen zaigu. Azken finean, esklabotzatik irteteko, hezkuntza da gako nagusietariko bat. Horrenbestez, hezkuntzak askatuko gaitu. Barne sentimenduak astinduko dizkigun istorio gogoangarri honek haurren esklabotza modernoaren inguruan hausnartzeko beta paregabea eskaintzen du. Ez utzi aukerari alde egiten.